

## BERDINATASUNAREN KUDEKETA ARLOKO PRAKTIKAREN IZENBURUA:

Arrisku psikosozialen azterketa genero-ikuspegia kontuan hartuta.

## BILATZEN DITUEN HELBURUAK:

- Elhuyarren osasuna eta bizi-kalitatea zaintzea, mantentzea eta hobetzea.
- Elhuyarreko kideon osasunaren kudeaketa-eredu osasungarri eta erresilenteetara bideratzea.
- Osasun eta ongizatea kaltetu dezaketen arriskuak identifikatzea, horiei aurre egotea eta hauek prebenitzeko estrategiak garatzea; arrisku horietan genero rol- eta -estereotipoek zein genero hezkuntzak duen eragina aztertu eta kontuan izatea.

**ENTITATE ARDURADUNA:** Elhuyar Fundazioa

**EMAKUMEZKO LANGILEEN KOPURUA:** 70

Guztiraren gaineko portzentajea: % 66,67

**GIZONEZKO LANGILEEN KOPURUA:** 35

Guztiraren gaineko portzentajea: % 33,33

**WEBGUNEA:** <https://www.elhuyar.eus/eu>

**JARDUNBIDE EGOKIAN PARTE HARTZEN DUTEN BESTE ENTITATE BATZUK:**

SASOI lan ongizatea

**HASIERA DATA:** 2023ko urtarrila

**HARREMANETARAKO PERTSONA:** Eli Etxabeguren Aranzabal

**HARREMANETARAKO TELEFONOA:** 943 36 40 40 / Luzp.: 513

**HARREMANETARAKO E-MAILA:** e.etxabeguren@elhuyar.eus

<b>HITZ GAKOAK: Praktikak harreman handien duen 5 kontzeptuak hurrengoak dira:</b>			
	Estrategia		Enplegarritasuna
X	Pertsonak		Maskulinitutako Sektorea
	Aliantzak		Lanaldiaren murrizketa
	Hornitzaileak		Baimenak
	Gizarte Erantzukizun Korporatiboa		Amatasuna eta aitatasuna
X	Erakunde Eredua		Kontziliazioa
X	Zeharkakoa		Telelana
X	Kualitatibo eta kuantitatiboa		Denboraren eta espazioaren antolamendua
	Kudeaketa Sistematikoa, metologia edo prozesua		Erantzunkidetasuna
	Diagnostikoa	X	Zaintzak eta bizitzaren iraunkortasuna
	Berdintasunerako plana	X	Segurtasuna, Osasuna eta Ongizatea

	Ikerketak eta genero analisiak		Bezeroentzako/erabiltzaileentzako arreta
	Estrategian Integrazio		Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako protokoloa
x	Genero ikuspegia txertatzea/mainstreaminga		Lan baldintzak
	Feminizidioa		Ordainsari- politika
	Genero-indarkeria		Sailkapen profesionaia
	Jazarpen-puntu beltza		Kristalezko sabaia
x	Arriskuaren aurreikustea		Parekidetasuna
	Barne komunikazioa		Lidergoa
	Kanpoko Komunikazio		Interseksionalitatea, Aniztasuna
	Komunikazio ez-sexista	x	Genero-ikuspegia
	Gardentasuna		Emakume erreferenteen ikustaraztea
	Publizitatea		Autodefentsa feminista
	Nazioarteko egunak: kanpaina 22F, 8M, 25A		Ahalduntzea
	Formazioa eta Sensibilizazioa		LGTBIQ+ politikak
	STEAM		Berdintasunezko maskulinitateak
	Mentoretza		Emakume migratzaileak
	Barne Promozioa		Gizarte Esku-hartzea

#### DESKRIBAPENA:

Osasun psikosoziala ebaluatzeko prozesu bat egin dugu erakundeetan (galdetegiak, focus grupak, elkarrizketak, eta abar), eta lortutako emaitzak kontuan izanda, erakundearen helburua lortzeko beharrezkoak diren gaiei heltzeko beharrezko neurriak abiaraziko ditugu datozen urteetan.

Ebaluazio prozesu honetan genero-ikuspegia hasieratik txertatzeko berariazko lanketak eraman ditugu aurrera. Prozesua abiatu baino lehen hainbat erabaki hartu genituen zeharkako lanketa eta begirada honetan eraginkorrak izateko, besteak beste, lantaldeko berdintasun teknikari bat integratu dugu talde eragilean. Talde eragile hau prozesuaren hasieratik era sistematikoan bildu da, eman den urrats bakoitzaren gaineko erabakiak hartu, galdetegi osatzeko beharrezko ekarpenak egin, talde elkarrizketetan parte-hartuko duten pertsonen profila zehaztu eta emaitzen inguruko hausnarketa egiteko.

Etengabeko jarraipen horretan berdintasunean aditua den teknikari baten presentzia bermatzeaz gain honako lanketa zehatzak egin ditugu prozesuan zehar:

- Datuak sexuaren arabera bereizita jaso eta ustiatu ditugu, datu orokorraz gain emakumeen eta gizonen egoerak berdinak ziren ala ez aztertuz.
- Gizartean dauden genero-arrakalen eta horien ondorioen kontziente izan gara eta horiek aintzat hartuta egin ditugu irakurketak.
- Aurrekoarekin lotuta, genero-arrakalen eta zaintzaren arteko gurutzaketa ere faktore garrantzitsua zela kontziente ginen eta, beraz, zaintzaren aldagaia ere txertatu genuen aintzat hartzeko aldagai moduan.

**ALDERDI BERRITZAILEAK:** Osasunak arloan erakundeetan egiten diren azterketa eta hartzen diren neurrietan genero-ikuspegia kontuan hartzeak duen garrantzia mahai

gainean jarri dugu. Emakume eta gizonen osasunean (fisiko zein psikosozialetan) genero sisteman duen eragina aztertu eta genero bakoitzak bizi dituen errealitateak bereizturik aztertzeak, emakumeen bizi dituzten hainbat osasun arazo ikusarazi ditugu. Bada, orain arte berezkozat ematen ziren hainbat egoera psikosozial, estres maila, lan mota eta azkartasun maila eta abar luze batean lan egiten duten erakunde feminizatueta esku-hartze eraginkorrak proposatzeko bidea zabaldu dugu. Bada, lan eremu feminizatueta sortzen diren berariazko osasun arriskuak plazara atera, hauek emakumeengan duten eragina ikusarazi eta hauekin amaitzeko estrategien beharra nabarmendu dugu.

**EMAITZAK** (inpaktu positiboak edo ondorio negatiboak murrizketa):

- Oro-har emakumeek estres maila altuagoa adierazten dute. Lanketa honen ondorioz Elhuyarreko lankide guztiak genero-ezaugarriek laneko arrisku psikosozialen esposizio mailetan duten eraginaz jabetzeko eta honen inguruan hausnartzeko aukera izan dugu. Azterketa zabal honen ondorioz, emakumeek lanean estres maila altuagoa bizi dutela ondorioztatu ahal izan dugu. Emakume kategoriaz gain, antzinasunak, adinak eta ardura postuek ere zeharkatzen dituzte estres maila altuenak dituzten pertsonak.
- Arriskuekiko esposizioak emakumei eta gizonei desberdin eragiten dienez, eta, beraz, osasunean ondorioak desberdinak direnez, genero-ikuspegia kontuan hartuko dugu osasun kanpainak diseinatzerakoan, langile guztien lan-osasuna babesten laguntzen duten prebentzio-praktikak aplikatzeko. Baita lanaren ondoriozko osasun-arazoak prebenitzeko balio duten ohiturak sustatzeko edota norberaren erantzukizunari buruzko kontzientzia sortzeko osasunaren zaintzan. Bada, osasunaren zaintza errazteko ekintza praktikoak landuko ditugu genero-ikuspegia aintzat hartuta.

**KUDEAKETAN INTEGRATUA:** azterketa psikosozialen inguruko azterketa lankide guztien artean zabaldu da hasieratik, guztion parte-hartzea sustatu da bertan eta uneoro egon da presente genero-ikuspegiz lan egiteak duen garrantzia eta inpaktua. Azterketa hau, laneko arrisku eta osasunaren zaintzaren kudeaketan aurrera pausu bat gehiago izan da. Erakundearen kulturaren eragiteko, lankideen ongizate psikosoziala bermatu eta elkarbizitza berdinezale eta osasuntsu bat sustatzeko helburuarekin martxan jarritako prozesua izan da. Hemendik aurrera, hartuko diren neurriekin eta diseinatuko den ekintza planarekin erakundearen pertsonen egoera psikosoziala hobetzeko esku-hartzeak sistematizatzea da helburua, emakumeen errealitatea berariaz kontuan hartuz.

**ERAGINKORRA:** Kanpo aholkularitza kontratatu da prozesua bideratu eta ekintza-planaren diseinuan laguntzeko. Era berean, genero-ikuspegiz lan egiten zela bermatzeko Elhuyarreko berdintasun teknikari bati lan-orduak esleitu zaizkio prozesu osoan parte-hartu dezan.

**PARTE HARTZEA ETA PRAKTIKAREN IRISMENA:** Prozesuaren aurkezpena unitatez unitate egin zen era presentzian, prozesuaren parte-hartzea, ulermena eta irismena handitzeko. Azterketaren oinarria Elhuyar talde osoari zuzenduriko galdetegia eta ondorengo talde-elkarrizketak izan dira. Galdetegia lankide guztiek erantzun dute,

arestian aipatutako kopuruek. Talde-elkarrizketetan 39 pertsonek hartu zuten parte, 29 emakume eta 10 gizon.

**DOKUMENTATUA:** Amaieran, ondorioen eta diagnostikoaren dokumentua partekatu da lan-talde osoarekin. Unitatez unitate egin dira emaitzen aurkezpenak eta amaierako dokumentua landu da guztion artean.

**ARRAKASTA-FAKTOREAK:** Elhuyarren zuzendaritzaren inplikazioa, pertsonetatik eskainitako dedikazioa prozesu parte-hartzailea bideratzeko eta berdintasun teknikariaren presentzia bermatzeko egindako lanak izan dira arrakastarako gakoak.

**TRANSFERIGARRITASUNA:** Lanaren faktore psikosozialak eta antolaketaren alorrekoak lan-osasunean eragin positiboa zein negatiboa izan dezaketen lanaren antolaketa-baldintzak dira. Erakundeko kultura, lidergo eta giroa direla-eta lan-baldintza bikain edo txar-txarrak sor daitezke, langileen osasunean ondorio positibo edo negatiboak eraginez. Testuinguru honetan emakumeen eta gizonen errealitateak era berezitan aztertzeak erakundearen kulturaren argazki argigarria eman diezaguke; bertan ematen diren hainbat arrakala, botere-harreman, zaugarritasun egoera eta abar luzea identifikatzeko beste tresna bat eskaintzen ditu, esku-hartze eraginkorrak garatu ahal izateko iturri bat gehiago.

**IKASKUNTZA:** Talde-elkarrizketatan ez genuen emakumeekin berariazko saio bat egin, interesgarria litzake talde-elkarrizketa horietako bat emakumeekin soilik egin eta bertan berariaz genero-ikuspegia kontuan hartutako lanketa egitea.

#### **PRAKTIKA AKREDITATZEN DUEN MATERIALA:**

OSASUN PSIKOSOSIALAREN EBALUAZIOAREN EMAITZEN DOKUMENTUA:  
ONDORIO NAGUSIAK

## **ONDORIOAK**

ELHUYAR, gaur egun osasun psikosozialari dagokionez **maila osasungarrian** dago.

Hainbat indargune identifikatu ditugu, baina hobetu beharreko arlo batzuk ere antzeman ditugu.

Identifikatutako indargune horiek zaindu behar ditugu, hobekuntza-eremuak bideratzeko lagungarri izango bait zaizkigu .

Hobetu beharreko arlo horiei arreta jarri behar zaie eta horiek bideratzeko neurriak sartzeari beharrezkoa da.

**Errealitate desberdinak** antzeman ditugu unitate desberdinen artean, osasun psikosozialari dagokionez, eta ondorioz behar desberdinak hauteman dira.